

**MIKROIPUINA**  
**E KATEGORIA**  
**Izengoitia: Xurdin**

**EZJAKINEN EGUNA**

Urteroko legez, demokraziaren eguneko gobernuaren eskutitza iritsi da herritarren etxeetara.

*Ezjakin agurgarriak,*

*Demokraziaren 100. urtea denez, egun zoriontsua opa dizuegu. Horregatik, honen ezaugarriak gogorarazi nahi dizkizuegu, gaizkiulerturik ez izateko:*

- 1. Boterea ez da herritarrena, izan ere, gure erabakiak justifikatu besterik ez dituzue egiten bozaren bidez.*
- 2. Ez duzue ezer aldatzeko aukerarik, gure nahiera hartuko dituzue erabakiak.*
- 3. Noizbehinka politikariak aldatzen dira, aurrerapen sentsazioa sumatzeko, baina helburua beti bera da.*
- 4. Beraz, demokraziaren xedea herritarrak lokartzea eta askeak zaretela pentsaraztea da, gobernuak nahi duena egin ahal izateko; herritarrek ez baitute arazorik hautematen.*

*Ondo izan.*

Egunak aurrera joan ahala, ez zen inolako erantzunik iritsi. Lokartuko al ziren?